

EUSKAL ENPRESEN EGITURA ETA DEMOGRAFIA 2012-I-1

Euskal AEko establezimendu-kopurua jaitsi egin da laugarren urtez jarraian

Jarduera hasi eta eten duten enpresen arteko saldo garbia 7.000 pasa da, negatiboa

Euskal AEn, 2012ko hasieran, jarduera-sektoreetako 165.517 enpresa ari ziren, Eustaten datuen arabera, 184.471 establezimendutan (lantegietan, dendetan, bulegoetan...)

Establezimendu kopurua sektore guztietan murriztu da, Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzan izan ezik, non %0,9 hazi den. Aipagarriak dira Higiezinaren jarduerak (%-24,5) eta Eraikuntza (%-8,8).

Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2012-I-1

	Euskal AE		Araba / Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	184.471	-	25.788	-	95.302	-	63.381	-
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	6.240	-	1.813	-	2.036	-	2.391	-
Gainerako sektoreak	178.231	-3,9	23.975	-3,7	93.266	-3,7	60.990	-4,4
Industria, energia eta saneamendua	13.413	-5,0	2.222	-4,2	6.003	-5,8	5.188	-4,3
Eraikuntza	24.844	-8,8	3.322	-13,0	12.469	-8,4	9.053	-7,8
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	70.403	-2,2	9.250	-2,6	37.686	-2,2	23.467	-2,2
Informazioa eta komunikazioak	3.180	-2,3	414	-3,9	1.740	0,6	1.026	-6,4
Finantza jarduerak eta aseguruetakoa	5.188	-0,2	760	-2,9	2.803	1,2	1.625	-1,3
Onibar-jarduerak	4.204	-24,5	245	-3,9	2.479	-25,9	1.480	-24,7
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	28.609	-0,7	3.899	0,7	15.325	-1,4	9.385	-0,2
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	15.897	0,9	2.149	1,5	8.472	1,3	5.276	0,2
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	12.493	-7,5	1.714	-4,2	6.289	-3,8	4.490	-13,2

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Sektore kopuruz handiena Merkataritza, garraio eta ostalaritza da, establezimendu guztien %38,2, ondoren Jarduera profesional eta laguntzaileak, %15,5 eta Eraikuntza, %13,5.

Merkataritza, garraio eta ostalaritza bada baita ere garrantzitsuena enpleguari begiratuz, Euskal AEko %25,9 enplegatzen baitu, direktorioak kontabilizatutakotik. Ondoren Industria, energia eta saneamendua, %21,7, eta Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %20,1.

Sektore-egitura aldatu egiten da lurraldeen artean. Araban enplegatzailearik handiena Industria, energia eta saneamendua da, %28,6; ondoren Merkataritza, garraio eta ostalaritza, %22,6 eta Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %21,7.

Gipuzkoan berdintsu dabilta Merkataritza, garraio eta ostalaritza, %25,9, eta Industria, energia eta saneamendua, %25,4. Hirugarren Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %19,3.

Bizkaian aurrena Merkataritza, garraio eta ostalaritza, %26,9; bigarren Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %20,1 eta hirugarren Industria, energia eta saneamendua, %17,1.

Tamainaren arabera establezimendu-banaketa 2011n aurreko urtekoaren oso antzekoa izan zen. Apenas 2.314 establezimenduk, guztien %1,3k zituzten 50 langile edo gehiago; halere, enpleguaren %37,7 ziren. 137.997 establezimendu, guztizkoaren ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %19,7 bakarrik hartzen dute.

Establezimenduen jarduera-adarraren arabera batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazio handiena, bai Euskal AEn, bai lurraldeetan, Industria eta energia da. Euskal AEn establezimenduko batez besteko tamaina 14,1 enplegu da. Araban 18,3; Gipuzkoan 14,1 eta Bizkaian 12,6. Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzan establezimenduen batez besteko tamaina: 14,3 Araban, 10,6 Gipuzkoan eta 10,5 Bizkaian.

ENPRESAK

Establezimenduen jardueraren euskarri diren unitate juridikoen –enpresen- %97,6k egoitza Euskal AEn dute eta 3.891k estatuen gainerakoan. Bizkaian 83.284 enpresa daude, erdia pasatxo; Gipuzkoan 56.491 eta Araban 21.851.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,3 okupatu enpresako, eta 4,7 establezimenduko. Nortasun juridikoaren arabera azterketan alde nabarmenak daude. Titularra Pertsona Fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 10,9 eta 8,8 okupatu dira, enpresako eta establezimenduko.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza aparte utzita, jarduera hasi duten eta eten duten enpresen arteko saldo garbia -7.296 da.

Errotaziorik handiena Merkataritza, garraioa eta ostalaritzan (alten %36,2 eta baje %32,0), Eraikuntzan (alta guztien %18,3 eta baja guztien %23,1) eta Jarduera profesional eta laguntzaileetan (alta guztien %17,7 eta baja guztien %12,9) nabarmentzen dira.

Establezimenduen demografia (Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza salbu).
Euskal AE. 2012-I-1

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Total	14.573	21.869	Guztira	14.573	21.869
Industria, energia eta saneamendua	690	1.391	Pertsona fisikoa	9.807	9.956
Eraikuntza	2.670	5.058	Akziokako elkartea	253	1.063
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	5.272	7.008	Elkarte mugatua	3.193	6.498
Informazioa eta komunikazioak	416	437	Bestelako elkarteak	1.213	4.198
Finantza jarduerak eta aseguruetoak	382	386	Bestelako forma juridikoak	107	154
Onibar-jarduerak	235	1.560			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.584	2.822			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.210	1.077			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.114	2.130			

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Demografia nortasun juridikoaren arabera aztertuz gero, Pertsona Fisikoaren formula juridikoarekin sortutako establezimenduak nabarmentzen dira: alden %67,3 eta baje %45,5.

Nortasun juridiko mota guztiek galtzen dute establezimendurik. Gutxien galtzen dutenak, Beste forma juridikoak (37); gehien, Beste sozietate eta asoziazioak (3.176) eta Sozietate mugatuak (3.138).

Enplegu kontuetan, Pertsona fisiko diren establezimenduetan gauzatu dira alden %42,2 eta baje %25,6. Sozietate mugatuetan izan dira enplegu alden %32,3 eta baje %38,6.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien %91,7 eta baja guztien %86,7 hartu ditu.

Establezimendu handiagoen (50 langile edo gehiago) geruzan alden %0,2 basterik ez, eta baje ehuneko bera. Berriz, haienak dira enplegu-alden %8,7 eta baje %11,1.

Oharra: Aurreneko aldiz ekarri dira Euskal AEko Jarduera ekonomikoen direktoriora Lehen sektoreko enpresa eta establezimenduak.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Federico Gutiérrez

Tel.: +34-945-01 75 43 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko Prentsa-oharrak](#)